



**Arartekoaren 2023R-2138-20 Ebazpena, 2023ko ekainaren 8koa. Honen bidez, Derioko Udalarari gomendatu zaio udal-igerilekuetako 2020ko udako abonuen prezioaren % 50a itzul diezaiela udalerrian erroldatuta ez dauden abonatuei, pertsona horiek ere zerbitzu horren erabileran edukiera- eta ordutegi-murrizketak pairatu baitzituzten.**

### Aurrekariak

1. Derioko udako igerilekuen —Urbe parkea— erabiltzaile diren eta ondoko udalerrri batean bizi diren hiru familiak beren desadostasuna adierazi zuten Arartekoan, udal-erakunde horrek ez ziolako berariaz erantzun beraiei ere udako igerilekuen abonuen prezioan % 50eko deskontua ezar diezaietela eskatzeko xedearekin 2020ko udan egin zuten erreklamazioari.

Beren kexan azaldu zuten, Derioko Udalak, 2020an, aipaturiko instalazioak erabiltzeagatik udalerrri horretan erroldatuta daudenentzat eta ez daudenentzat bi tarifa desberdin onesteaz gain, COVID-19tik eratorritako pandemiaren ondorioz hartu behar izan ziren ordutegi- eta espazio-murrizketengatik (igerilekuak segurtasunez erabil zitezten) kaltetuak izan ziren erabiltzaileak konpentsatzeko, udalerrian erroldatutako pertsonen soilik aplikatu zekiekeen % 50eko deskontu gehigarria ezartzea erabaki zuen.

Familia kexagileek uste zuten erabaki horiek udal-zerbitzu publikoen prestazioan nagusi izan behar duen berdintasun-printzipioaren aurkakoak zirela.

Horri dagokionez, adierazi zuten 2020 urte horren hasieran, Derioko Udalak tarifa berrien zerrenda bat argitaratu zuela, non udalerrian erroldatuta ez zeuden pertsonentzako altuegiak ziren kuotak ezartzen baitziren. Hala, udako familia-abonuen zenbatekoa, erroldatuta dauden pertsonentzat, 71,69 eurotan finkatu zen; erroldatuta ez daudenentzat, berriz, 97,29 eurotan.

Era berean, kaltetuek adierazi zuten, COVID-19aren pandemiatik eratorritako salbuespenezko inguruabarrak direla-eta, Derioko Udalak 2020ko ekainaren 16ko informazio-gutun bat bidali zuela; horren bidez, udako igerilekuaren irekiera- eta itxiera-baldintza berriak azaldu zituen. Bertan, honako hau ezarri zen: *“Lógicamente, estas restricciones tendrán su repercusión en el precio de los abonos.”*

Jakinarazpenean, bigarren informazio-orri bat jaso zen, eta bertan, instalazio horietan hartu behar ziren ordutegi- zein espazio-murrizketak zehaztu ziren.

Bigarren informazio-ohar honen 9. Idatz-zatian —udako igerilekuen irekiera erregulatzeko irizpideak zehaztu zituena—, abonuen harira, honako hau ezarri zen:





*“Lógicamente, estas restricciones tendrán su repercusión en el precio de los abonos. Durante este trimestre (Julio, Agosto, Septiembre) se aplicará un descuento de un 50% en el abono de las Piscinas de Verano a las/os abonadas/os del Polideportivo y empadronadas/os en Derio. Las/os abonadas/os que lo deseen, podrán solicitar la suspensión del pago de este trimestre (lógicamente no podrán hacer uso de las instalaciones durante este período) previa notificación en la recepción de la piscina de verano a partir del 22 de Junio.”.* Hau da, ordaindu beharreko kuotaren deskontua abonatuta zeuden eta udalerrian erroldatuta zeuden pertsonen onurarako bakarrik izango zen.

Ondorioz, tarifa berriak, Uribe parkeko instalazioen erabileran udan izandako murrizketen ondoriozko deskontuak aplikatu ondoren, 2020ko udan, honako hauek izan ziren:

|   |         |
|---|---------|
| Erroldatuta daudenentzako familia-abonua .....    | 35,85 € |
| Erroldatuta daudenentzako banakako abonua         |         |
| 18 urtetik gorakoa .....                          | 25,60 € |
| 18 urtetik beherakoa .....                        | 7,92 €  |
| Erroldatuta ez daudenentzako familia-abonua ..... | 97,29 € |
| 18 urtetik gorakoa .....                          | 76,81 € |
| 18 urtetik beherakoa .....                        | 17,92 € |

Kexagileek adierazi zuten, egoera horren aurrean, 2020ko uztailaren 2an eta abuztuaren 16an, igerilekuetako sarreran, bi erreklamazioak aurkeztu zituzten. Horien bidez, aipaturiko deskontuak erroldatuta dauden pertsonen bakarrik ezarri izana salatu zuten. Era berean, aitortu zuten, erantzunik jaso ez zuten, irailaren 5ean berriro adierazi zutela neurriaren kontra zeudela, diskriminatzailea zela uste baitzuten; izan ere, ordutegien eta zerbitzuen murrizketek udako igerilekuen erabiltzaile guztiei eragin zieten, udalerrian erroldatuta egon edo ez. Familia kaltetuek azaldu zuten, erreklamazio hori, igarotako denbora gorabehera, ez zuten berriazko erantzunik jaso toki-erakunde horren aldetik.

2. Arartekoak, bere informazio-eskaeran, Derioko Udalarari adierazi zion erroldatzea ez litzatekeela izan behar juridikoki onar daitekeen irizpidea, zerbitzu publikoen erabileragatik desberdintasunak ezartzeko ordaindu beharreko tarifen zenbatekoan. Era berean, eskatu zion berriaz ebatz zezala aipaturiko familiek sustaturiko erreklamazioaren edukia.

Nolanahi ere, 2023ko apirilaren 19ra arte, *Gertuan* Derioko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak ez zuen aurkeztu erakunde honetan 2023ko otsailaren 28an aipaturiko familiei e-mail bidez bidali zitzaizen erantzuna. Jakinarazpen horren edukia Alkatetzaren Zerbitzuak baieztatu zuen 2023ko apirilaren 20an.





Zehazki, jakinarazpen horretan honako hau adierazten da:

*“Kaixo:*

*Mezu elektronikoa hau bidaltzen diogu (...)ri, kexa bera agertu duten lagunei ere helaraz diezaien, ez baititugu haren mezu elektronikoak aurkitu, 2020ko uztailean eta abuztuan udako igerilekuei buruz aurkeztu zenuten eskaerari erantzuteko.*

*Bertan, kexa bat aurkeztu zenuten udako igerilekuak irekitzearekin botera hartutako erabaki batengatik. Ekainaren 16an DUK Erakunde Autonomoak igerilekuak irekitzeko baldintza berriei buruzko informazioa helarazi zuen. Bertan azaltzen zenez, COV/D-19ak eragindako pandemiaren salbuespeneko egoera zela-eta Derion abonatuak eta erroldatutako pertsonen % 50eko deskontua aplikatzeko erabakia hartu zen.*

*Mezu horretan bertan zehazten zen hiruhileko horretarako ordainketa eteteko aukera sartuta zegoela.*

*Ohi ez bezalako garaia zen, eta erabaki azkar eta erabakigarriak hartu behar ziren, betiere DUKeko instalazioen erabiltzaileen osasuna zaintzeko. Edukiera erdira murriztu zen, eta erabaki hori ziurgabetasunez betetako garai batean hartu zen, edozein unetan instalazioak berriro itxi zitezkeela uste baitzen.*

*Eskerrik asko zure ulermenagatik.*

*Agur bero bat.”*

### Gogoetak

1. 2020ko uztailearen 2an, kexagileek, udan zehar Uribe parkea erabiltzeko “erroldatuta ez daudenentzako familia-abonu” baten titularrek, beraiei ere familia-abonuaren kuotaren gaineko % 50eko murrizketa ezar diezaietela eskatu zuten. Murrizketa hori toki-erakunde horrek Derion erroldatuta zeuden pertsonentzako bakarrik aitortu zuen, COVID-19ak eragindako pandemiaren larritzea geldiarazteko ezarri behar izan ziren murrizketak zirela-eta udako igerilekuaren erabiltzaile horiek konpentsatzeko neurri gisa, antza.
2. Derioko Udalak zenbatekoa itzultzeko eskaera horri emandako erantzunean igerilekuak 2020ko uda horretan irekitzeko erabakia ziurgabetasun handiko egoera batean hartu zela azaltzen da, baina ez da adierazten, berariaz, egindako eskaerari emandako arreta zuzena den ala ez, eta ez dira aipatzen toki-erakunde horrek





konpentsazioa udalerrian erroldatuta dauden abonatueta bakarrak murrizteko oinarri izan dituen balizko arazoak.

Jadanik errepikatu izan den bezala, familia kexagileek ordaindutako kuotaren % 50 itzultzeko eskaera egin zuten udalerrian erroldatu dauden pertsonentzako udako igerilekuen abonuaren kuota murrizketa justifikatuko luketen erabilera-murrizketa berdinak zirelako aplikagarriak beraientzako ere. Toki-erakunde horrek kontu horren inguruan jardun beharko luke bere ebazpenean, baina ez du egin.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88. artikuluan ebazpenetan jaso beharreko edukia zehazten da, eta hala adierazten da:

*“88. artikulua. Edukia.*

*1. Prozedura amaitzen duen ebazpenean erabakiko dira, bai interesdunek planteatutako gai guztiak, bai prozeduratik eratorritakoak.*

*Lotura duten baina interesdunek planteatu ez dituzten gaiak agertzen baldin badira, organo eskudunak erabaki dezake haiei buruz, aurrez interesdunei adierazirik, gehienez ere hamabost eguneko epe batean, nahi dituzten alegazioak egin eta, hala badagokio, frogabideak aurkez ditzaten.*

*2. Interesdunak eskaturik izapidetutako prozeduretan, interesdunak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezein kasutan ezin izango du interesdunaren hasierako egoera okerragotu, hargatik eragotzi gabe Administrazioak ofizioz beste prozedura bat hasteko ahala izatea, hala badagokio.*

*3. Ebazpenean, erabakia jaso behar da, eta erabaki arrazoitua izan behar du 35. artikuluan aipatutako kasuetan. Horrez gain, ebazpenetan jaso behar da zer errekurso aurkeztu daitezkeen haren aurka, zer administrazio-organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkion eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki iritzitako beste errekurtsoren bat aurkezteko aukera.*

*4. Interesdunak jakinarazpenetarako adierazitako modua eta lekua gorabehera, prozeduraren ebazpena elektronikoki emango da; organo eskudunaren identitatea bermatuko du ebazpenak, eta orobat bermatuko du autentikoa eta osoa dela dokumentua, lege honetan aurreikusitako tresnetakoren bat erabiliz formalizatua.*

*5. Administrazioa inoiz ezin da ebazpena eman gabe gelditu, aitzakiatzat harturik kasuan aplikatzekoak diren lege-manuen hutsunea, iluntasuna edo*





*murriztasuna. Hala ere, Administrazioak erabaki dezake ez onartzea eskubideak aitortzeko eskaerak, eskubide horiek ez badaude aurreikusita ordenamendu juridikoan edo oinarria falta bazaie nabarmen, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 29. artikuluan jasotako eske-eskubidea.*

*6. Txosten edo irizpenak onartzeak ebazpena arrazoitzeko balioko du haren testuari gehitzen zaizkionean.*

*7. Prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena eta ebazpena ematekoa ez direnean organo berarenak, ebazpen-proposamen bat bidali beharko dio instrukzio-egileak ebazteko eskumena duen organoari.*

*Zehapen-prozeduretan, ondorengo artikuluan aurreikusitako moduan jakinarazi beharko zaie ebazpen-proposamena interesdunei.”*

39/2015 Legearen 88. artikuluan zehazten den eduki material eta formal hori ez da jasotzen kalteturiko familiei 2023ko otsailean e-mail bidez bidali zitzaien jakinarazpenean. Familia horiek —gaur-gaurkoz— ez dakite zeintzuk diren administrazio horren ustez bere egunean harturiko erabakia justifikatuko luketen arrazoi zehatzak, desadostasunik balego, zalantzan jartzeko.

3. Erroldatzea ez da juridikoki onar daitekeen irizpide bat ordaindu beharreko tasen zenbatekoan bereizteko.

Erakunde honek azpimarratu behar du, Derioko Udalbatzak toki-erakunde horrek eskainiko dituen zerbitzuak erabaki ostean, Udalaren jarduna eremu arautuaren barruan kokatzen dela eta, horrenbestez, legezketasunaren printzipioaren menpe.

Horri dagokionez, ezinbestekoa da botere publikoen jarduna Espainiako Konstituzioaren eta gainerako ordenamendu juridikoaren mende egotea. (9. art., Espainiako Konstituzioa).

Berdintasun-printzipioa aztertzean, Konstituzio Auzitegiaren etengabeko doktrina finkatua hartu behar da abiapuntutzat; izan ere, horrek adierazten du tratamendu-desberdintasuna onar daitekeela hori irizpide objektibo eta zentzudunetan oinarritzen denean.

Zentzu horretan, Konstituzio Auzitegiak adierazi izan du berdintasun-printzipioak ez dakarrela nahitaez kasu guztietan lege-tratamendu berbera ematea, garrantzi juridikoa duen edozein elementu bereizgarri bakartuz. Hortaz, gai zehatz baten arauketari dagokionean araudi-tratamendu desberdina emateak ez du beti esan nahi Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasotako agindua urratzen denik. Izan ere, soilik hartuko dira arau-haustetzat bereizketa hori egiten denean berdintzat har



daitezkeen egoeren artean, horretarako justifikazio objektibo eta zentzudunik eskaini eta eduki gabe. Azken batean, berdintasun-printzipioak arbitrariotzat har daitezkeen edo justifikazio zentzudunik ez duten bereizketa-elementuak erabiltzea debekatzen du. Beste era batera esanda, berdintasun-printzipioak debekatzen duena desberdintasunak artifiziosuak edo justifikaziorik gabekoak dira, hain zuzen ere, irizpide objektibo eta zentzudunetan oinarrituta ez egoteagatik, oro har onartutako irizpide edo balio-judizioen arabera.

Erroldatzea ez da juridikoki onar daitekeen irizpide bat ordaindu beharreko tasen zenbatekoan desberdintasunak ezartzeko. Hori da epaitegien doktrina zabal batetik eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziatik atera daitekeen ondorioa.

Zergei dagokienez (hori da tasei dagokien eremua), kontribuzio-ahalmenaren printzipioari dago lotuta, hori ezartzen duelako berariaz Konstituzioaren 31. artikulua; hauxe dio artikulua horrek: *“Guztiek gastu publikoei aurre egiten lagunduko dute, bakoitzak bere ekonomia-ahalbidetaren arabera; horretarako, zerga-sistema zuzena ezarriko da, berdintasun- eta progresibitate-printzipioetan oinarriturik; sistema hori ez da inoiz konfiskagarri izango”*.

Horregatik, bi printzipio horiek konbinatzeak ahalbidetuko du tratamendu bereizia ematea pertsoneri; hain zuzen ere, bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren arabera.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-legeriak beren-beregi jasotzen du ondorio berbera; zehazki, hauxe preskribatzen du: *“Zerga-sistemaren antolamendua zergak ordaindu behar dituzten pertsonen ahalmen ekonomikoan (...) oinarritzen da”* (Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 2.1. artikulua). Artikulu hori ez da amaitzen zergak ordaindu behar dituztenen ahalmen ekonomikoa aipatuta; aitzitik, jarraitu egiten du aginduz zerga-sistemaren antolamendua, gainera, honako hauetan oinarritzen dela: *“...eta justizia, orokortasun, berdintasun, aurrerakortasun, zerga-zamaren banaketa zuzenaren eta konfiskazio ezaren printzipioetan”*.

Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Araua da Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrietako baliabide-sistema arautzen duena. Foru-arau horrek, tasak ordaintzera behartuta daudenen kontzeptua arautzen duenean (24. artikulua), ez du egiten erroldatutako eta erroldatuta ez daudenen arteko bereizketarik. Izan ere, erroldatzea ez da Tokiko Ogasunen Foru Arauak tasak zenbateko ezartzen duen irizpide bat. Horri dagokionez, 25.4 artikulua udalerriak gaitzen ditu kontuan har ditzaten gaitasun-ekonomikoko irizpide orokorrak. Zehazki, artikulua horrek hauxe ezartzen du: *“Tasen zenbatekoa zehazteko, kontuan hartu ahal izango dira haiek ordaindu behar dituzten subjektuen ahalmen ekonomikoari buruzko irizpide generikoak.”*

Hortaz, ordenantza batek desberdintasun hori jasoko balu, ulertu beharko litzateke bereizketa horrek ordenantzaren muga gainditzea dakarrela, izan ere: *“Toki erakundeek (...) tasak ezarri ahal izango dituzte tokiko herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik, edota zergapekoei dagozkien edo haientzat eragin nahiz onura berezia dakarten zerbitzu edo jarduerak zuzenbide publikoko araubidean egiteagatik, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek ez badira zergapekoek beraiek borondatez eskatu edo jasotakoak, edota sektore pribatuak halako zerbitzu edo jarduerarik egiten ez badu.”* Ordenantzak ezartzen duen tasaren arauketa hori honela egin behar da: *“foru arau honetan ezarritakoaren arabera”* (21. art.)

Hau da, Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak toki-erakundeen arautzeko ahalmena mugatzen du; horiek foru-arauak ezartzen duen arauketa-esparrua errespetatu behar dute eta, adierazi den bezala, foru-arauak kontribuzio-gaitasuneko irizpide orokorretan oinarritutako tasen subjektu pasiboen artean bakarrik egitea ahalbidetzen du.

Horrenbestez, aurretik azaldutako horretatik honako hau ondorioztatzen da: zerga-ordenantza batek berdintasun-printzipioa urratzen du baldin eta ezartzen dituen tasetan, subjektu pasiboek, horien ahalmen ekonomikoa gorabehera eta soilik udalerrian erroldatuta egoteagatik, udalerritik kanpo bizi diren subjektu pasiboek baino gutxiago ordaintzen badute, azken horiek ahalmen ekonomiko txikiagoa izan arren.

Era berean, Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia onartzen duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren xedapenak aipatu behar dira, zehazki, 150. artikulua; izan ere, artikulua horrek erabiltzaileen berdintasun-printzipioa ezartzen du, zerbitzuen tarifei dagokienez; zehazki, hauxe xedatzen du:

- “1. La tarifa de cada servicio público de la Corporación será igual para todos los que recibieren las mismas prestaciones y en iguales circunstancias.*
- 2. No obstante, podrán establecerse tarifas reducidas en beneficio de sectores personales económicamente débiles”*

Toki udalbatzetako zerbitzuen araudiaren xedapen hori tokiko erakunde guztiak lotzen ditu eta ez dator bat zerbitzua erabiltzeagatik –erabiltzailea bizi den udalerrian arabera, eta ez ematen den zerbitzu zehatza edo erabiltzailearen egoera sozio-ekonomikoa– prezio handiagoa ordaindu behar diren alde egiten duen tarifa ereduarekin.

Agerikoa dirudi igerileku horietan erroldatuta ez daudenei ematen zaien zerbitzua Derioko udalerrian erroldatuta daudenei ematen zaienaren berdina dela. Beraz, hori horrela bada, eta ez dago horrela ez dela pentsatzeko arrazoirik, toki-erakunde



gaur egungo tarifa-ereduak ez du betetzen zerbitzu bera baldintza berdinetan emateagatik tarifa berdina kobratzeari dagokion printzipioa.

Bestalde, auzotasunaren datua bakarrik aintzat hartuta, ezin da objektiboki eta zentzuz ondorioztatu *"ekonomikoki ahula den sektore pertsonal"* bat dagoenik, eta hori izango litzateke, hain zuzen ere, gure antolamendu juridikoak toki-erakundeei eskaintzen dien faktore bakarra zerbitzu berbera emateagatik biztanle talde baten alde tarifa desberdin bat ezartzeko.

Hau da, tarifetan bereizketarik egitekotan, justifikatuta egon behar du horrek, onura hori eskuratzen duten obligaziodunek gaitasun ekonomiko txikiagoa dutela-eta. Horren harira, adierazi beharra dago, orain arte ez dela erakutsi Derion erroldatutako pertsonen gaitasun ekonomikoa udako igerilekuetako gainerako erabiltzaileena baino txikiagoa denik.

Kontuan izan behar da *"Herritarrek tokiko zerbitzu publikoetara iristeko berdintasuna izatearen printzipioa"*, era berean, tokiko araubidearen eta zuzendaritza politikoaren eta udalerrietako gobernu-ekintzaren printzipio gidari gisa ezartzen dela, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 4. artikuluan.

4. 2020ko udan zehar, zerga-ordenantzako tratamendu desberdin hori areagotu egin zen udako igerilekuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa % 50 murriztea erabaki zelako, baina udalerrian erroldatuta zeuden pertsonen bakarrik, pandemiaren hedapena geldiarazteko ezarri ziren erabilera-murrizketak konpentsatzeko, antza. Erabaki hori ekitaldia dagoeneko hasita zegoela hartu zen eta horren ondorioz Udalaren kirol-zerbitzuaren erabilera eta prestazioagatik ordaindu beharreko tasa arautzen zuen zerga-ordenantza aldatu behar izan zen.

Derioko Udalak ez du zehaztu zelan antolatu eta izapidetu zen une horretan indarrean zegoen zerga-ordenantzaren aldaketa, nork hartu zuen erabakia eta nola argitaratu zen.

Era berean, ez da inolako justifikaziorik eta azalpenik eman neurriaren irismen zehatzari buruz edo onura hasiera batean udalerrian erroldatuta ez dauden abonatuak ez aplikatzea erabakitzeko arrazoiei buruz. Era berean, orain ez da adierazi, familia horiek eskaera aurkeztu ondoren, eta denbora igarotzeagatik eskaintzen duen ikuspegiarekin, zergatik erabaki den eskaerari ez erantzutea, eta hori ez onartzeko arrazoiak ematea.

Denbora dezente igaro da eta beharrezkotzat jotzen da herritarren kexa hau zuzenbidearen arabera ebaztea. Horregatik, dirudien bezala, onura justifikatzeko arrazoiak bada abonatuak konpentsatu nahi zirela udako igerilekuetako erabilera-







baldintza berriengatik —aurreko urteetan baino murriztaileagoak—, ez dirudi objektiboki eta zentzuz esan daitekeenik muga horiek udalerrian erroldatutako abonatuak soilik eragin zitezela; izan ere, murrizketa horiek udako igerilekuetako abonatu guztiei ezarri zitzaizkien eta horiek nahitaez bete behar izan zituzten; hau da, Derion erroldatuta zeuden zein ez zeuden abonatuak eragin zituzten.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

Derioko Udalak Uribe Parkeko 2020ari dagokion udako abonuaren prezioaren % 50a itzul diezaiela udalerrian erroldatuta ez dauden abonatuak, pertsona horiek ere zerbitzu horren erabileran edukiera- eta ordutegi-murrizketak pairatu baitzituzten.

Toki-erakunde horrek aldatu ditzala Udalaren kirol-instalazioen tarifak, erroldatzea udal-zerbitzu publikoaren erabiltzaileek ordaindu behar dituzten tasak zenbatesteko irizpide gisa deuseztatzeko.

